

Joan den maiatzaren 6an Bizkargi Egunaren edizio berri bat ospatu genuen Bizkargi mendi tontorrean. Eguraldi bikainak lagunduta, jendetza bildu zen Bizkargin, 1936ko Gerrako eta Frankoren diktadura garaiko biktimentzat **oroimena, egia eta justizia** exijitzeko. Bidez batez, lagun artean eta jai-giroan, egun eder batez gozatzeko aukera izan genuen han batu ginen guztiok.

‘Memoria eta Etorkizuna’ goiburupean egindako ekitaldian, besteak beste, **Xabier Amurizaren agerraldia** izan zen azpimarratzekoa. Mikrofona eskuan hartu eta berehala bereganatu zuen aurrean zituen ehunka lagunaren arreta bere hitz jario eta indarrarekin.

Iragana eta oraina lotu zituen, betiere Bizkargi oinarri hartuta. Hala, bere aitak kontatutakoak nahiz berak bizi izan dituenak kontatu zituen: gerra garaian hegazkin faxistek Bizkargin egindako erasoak, erasoaldi haietan egindako sarraskiak, Frankoren diktaduran Guardia Zibilak Bizkargin egindako okupazioak...

Nagusiek eta helduek **emozioz** entzun zuten dena, ezin hobeto baitzekiten Amuriza zertaz ari zen, eta hari entzunda iragana irudikatu zuten berriro. Gazteak ere **adi-adi** egon ziren, duela hamarkada batzuk hemen gerra bat eta diktadura bat izan ditugula ulertu nahian.

Eta txikienak ere gustura egon ziren aurrean zuten bizar zuridun gizonaren istorioak entzuten. Baina ez ziren istorioak, benetako gertakariak ziren Amurizak gogora ekarri zituenak. Gure historiako gertakari latzak, baina **berriro gertatuko ez badira, gogoratu eta belaunaldiz belaunaldi transmititu beharrekoak.**

Zornotzako BIZKARGI GOGORATUZ ELKARTEA